


## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



### Euskal Hiriak Batzuen artean

EITB, SUA  
126 orrialde + DVDa  
32 euro

## Euskal hiriburuen ehun irudi eder

EITB eta Sua argitaletxeak batera plazaratutako liburuak eta DVDak osatzen dute *Euskal Hiriak. Viaje a las capitales vascas. A trip to the main Basque cities. Voyage dans les capitales basques*. Liburuan agertzen diren testua eta argazki zoragarriak Jorge Morenori zor zaizkio. DVDan erakusten diren Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Baiona, Donibane Garazi eta Mauleko irudiak berriz, Euskal Telebistako *Euskal Herria lau baiñetara* saioa egiten zuen taldeari eskertu behar zaizkio. Helikopterotik hartutako irudiak dira guztiak, eta euskal hiriburuetan aurki daitezkeen aniztasuna erakustez gain, leku ba-

koitzeko aberastasun artistikoen berri ere ematen dute. Jorge Morenok gogoratzen duen bezala, hiria gizarte bateko nukleo dinamikoena delako. ■



### Boletín

#### Batzuen artean

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN  
ELKARTEA  
305 orrialde  
12 euro

## Gipuzkoako Foru Aldundia ahuntzen aurka aritu zenekoa

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen duen *Boletín* aldizkariaren azken zenbakian, beste lan historiko interesgarriekin batera, honako hauek irakur daitezke: Pedro Berriochoak, 1876-1923 urte arteko epea kontuan harturik, idatzi zuen *Política anticabros de la Diputación de Gipuzkoa durante la Restauración*. Jesus Moyak berriz, Enrique II.ak iloba zuen Gaztelako Leonorri eman zion Juan I.a erregearen pribilegio baten testua ekarri du. Testu horretan Añanako jaurerria eta gatzari buruzko oinordekotasun zinpetua onesten da; izan ere, Gaztelako Leonorren alaba batek egingandako helegitearen ondorioz, diploma horrek bi aldaketa izan zituen, eta aldaketa horiek ez dira aipatzen Añanako bilduma diplomatikoetan. ■

## Etxeko txikienei eskainitako jokia

Ikas, euskal pedagogia zerbitzuak plazaratu berri duen jokia da *Lodikroko. Olerkiak iruditan eta musikan kondaturik*. Etxeko txikienei oso deigarri egingo zaizkien marrazkien batera, hamabi hitz joko eta olerki erraz eskaintzen ditu, guztiak musikarekin batera ozenki esateko aukerarekin, daraman CDari esker. Nolakoak diren olerkiak? Hona adibide txiki bat: *Krokodilo lodi, dilo lodikroko! Krokodilo ñaño, ñoña lodikroko! Non hago, non hago, krokodilo lodi? Kasu! Hurbil nago, erne izan badil!* Olerkiak eta ilustrazioak Amia Hennebutte Millardek egin ditu. Musika, Jesus Auredek. Perkusioa, Jérôme Martineauk. Kantua, Mari Dumorak. Ahotsak, Joxelu Berasategik, Amaia Hennebuttek, Jesus Auredek, Elea eta Peio Millard Hennebuttek, Julen Auredek, Joritzek eta Azkaineko ikastolako haurrek. ■



### Lodikroko. Olerkiak iruditan eta musikan...

**Batzuen artean**  
IKAS  
12 orrialde + CDa  
17 euro

## Zapata arrantzatu zuen neskatoa

Zortzi urteko neskatila da Begoña Lasak kontatzen duen istorio honetako protagonista. Liburuak Jon Zabaletaren irudi magikoekin osatu du Ereinek. Udako egun batez aitarekin arrantza egitera joan, eta arrainen bat harrapatu beharrean uretatik atera zuena zapata handi bat izan zen. "Saltsan jarrita goxoa geratuko da!" esan zion aitak barrez. Neska ez zen haserretu. Harrapatutako zapata oso bitxia zen, koloretsua; zirkoa ekartzen zuen gogora. Eta horixe gogoratu zuen neskatoak ere, zirkoa joan nahi zuela eta pailazoak ikusi, batez ere. Herriko festak izan arte itxaron behar izan zuen, ordea. Aurreneko egunean joateko gogo gutxi zuten gurasoek, baina alabak halako ilusioa zeukala ikusirik, anaiarekin joateko baimena eman zioten. Eta han, arrantzatutako zapataren jabea aurkitu zuten. ■



### Aitarekin arrantzan

**Begoña Lasa,  
Jon Zabaleta**  
EREIN  
32 orrialde  
6,20 euro



Ez da gaua  
begietara  
etortzen

**Felipe Juaristi**

EREIN

250 orrialde

17,50 euro

## Nor bere minaren konpainian bizi denean

ETAk atentatuan hil nahi zuen gizonaren orde bestea bat hil du. Egunkari bateko argazkilaria da gertatutakoaren lekuko. Tiro egin duenak han zer egiten duen galdetu dio eta alde egiteko keinua egin; horregatik argazkilaria atxilotu egingo dute, eta berehala askatuko badute ere —ez baitaki tiro egin duena nor zen—, lana galduko du. Okerrena beretzat ordea, beste arazo bat da: lagun batek deituta gerturatu zen atentatuaren lekura, eta ziur da lagun hura zela ETAk benetan hil nahi zuena. Zergatik? Bi urte pasa dira, eta geroztik ez du lagun horren berrik. Nola ez dio ezer esan?

Zalantza mingarri horretan dagoela, ETAk hildako gizonaren emaztea etorriko zaio ikusi zuenaz galdezka. **I**

## Garraiorako ibilgailuen berri haurrek ikas dezaten

“Zabaldu liburua eta gidatu zeuk!”. Horrela animatu dute Ibaizabal argitaletxeok *Zeuren gidari! Garraiorako ibilgailuak* liburua esku artean hartzen duen haurra. Azal eta orri lodiak ditu, eta edozein dela agertzen den ibilgailua haren barrura sartzeko atea ere baditu. Lehen orrian, taxia dago. Barruan beste bi laguntxo ditu, geltokira joan nahi dutela esanez. Gero tranbia agertzen da, eta ondoren txuku-txuku doan tren; inor jaisteko atea ireki behar zaizkion metroa, hegazkin ederra eta edonora darman autobusa. **I**

Zeuren gidari!

**Dan Crisp**

IBAIZABAL

14 orrialde / 6,50 euro



**XABIER MENDIGUREN ELIZEGI**

## «Liburu honetako narratzaileak ikuspegi xaloa dauka»

Zein berezitasun ditu nobela honek?

Liburu honek asko du soziologiatik. Fikzioa, neurri handi batean, aitzakia da Elvis hil zen urteko garaiaz hitz egiteko. Ez da inon aipatzen zer herri den, baina nik buruan nuen nirea bezalako herri bat, hau da, euskaldunak eta erdaldunak kopuruz berdintsu zirena eta industrializatua zena. Berdin izan daiteke Legazpi, Zumarraga, Ordizia, Andoain, Elgoibar eta beste mordoska. Eta hitz egiten da politikaz —ez asko—, soziologiaz, jendearen pentsaeraz eta abar, gaztetxo batzuen ikuspegitik. Gaztetxoak izan ohi dira nahiko xaloak, tolesgabeak, inuxenteak, idealistak, bihotz handikoak, eta holako ikuspegi samurra dauka narratzaileak.

Zergatik jarri zenion titulu hori?

Elvis izena behin eta berriz agertzen da liburuan, baina ez Elvis bera, ez eta haren musika ere. Protagonistek musika asko entzuten dute, baina Janis Joplin, The Who, The Doors... Liburuan nerabezarorari dagokion istorioa kontatzen da: nesken bilatze, irrikatze kontu hori.

Azal deigarri samarra du zure liburu honek.

Lehen ere egin nuen liburuaren bat azal deigarria zeukana eta, hura ikusita, baten batek esan zuen: “Euskal Herriko azalik probokatzaileenak egiten dituzu”. Eta erantzun nion: Egiten zizkidatek! Eta hau ere, jakina, ez da nik egina. Meritua du Lorea Uribetxeberria izeneko diseinatzaileak. Eta ez da probokazio hutsa. Liburua leitu eta gero egin zuen, eta liburu pasarte inportante bat da hor dagoena. Horrek ez dakit irakurtzeko gogoia pizten duen edo ez duen, baina azala, berez, polita da.



DANI BLANCO

## 1977an hamabost urte zituztenen ikuspegia

Hamabost urte betetzear edo bete berri dituzte Xabier Mendiguren Elizegiren azken

nobela samurreko hiru protagonistek. Lagun minak dira *Elvis hil zen urtean*, nahiz eta narratzaileak aurreratzen duenagatik gerora gauzak aldatuko diren. Baina kontatzen den udan izugarri maite zuten elkar; hainbeste, une batean homosexual ez ote den izango galdetuko dio bere buruari narratzaileak, beldurrez. Gaztelan aritzen dira, narratzailea baita euskaldun bakarra, euskara gehiegi maite ez duen euskalduna, dena esan behar bada. Uda hori oso berezia da beraiantzat, beste uda batzuetan elkarrekin egoteko aukerarik ez zutelako izan, taldeko batek gurasoekin “al pueblo” joan behar izaten zuelako. Baina *Elvis hil zen urtean* herrian galdetuko da, hemezortzi urteko arrebaren zain-

egileari galdezka



Elvis hil zen  
urtean

**Xabier  
Mendiguren  
Elizegi**

ELKAR

90 orrialde / 9 euro

tzapean. Arrebak ez duenez gurasoek bezain zorrotz zaintzen, bere etxean elkartuko dira maiz taldekoak. Eta ohartzeko narratzailea maitemindu egingo da zeharo lagun baten arrebaz. Holako sentimendu sukartsua ezin, bada, barruan gorde isilean, eta gutun “poetikoak” bidaliko dio mutikoak bere amodioari, *Tus perjúmenes* kantan inspiraturik. **■**